


## ERANZUERA.



«Donostiako Euskal-itz-jostaldien Batzarre argidortarrari:

Gure Euskera maitea aiñ zoragarria dalarik, eziñ mintza naiz, nainuken erara, Bilguma errespetaigarri orri eskerrak emateko.

Euskal lurrean jaio ta bizitua, bere mendiyetan gordeak daude, kucha batean bezela, nere biotzaren poz eta penak, amak erakutsi ziran izkuntza gozoan maiteró kantatuak. ¡Zér atsegiñgarria gaur neretzat, eta—¿zér gatik ez esan?—nere amarentzat, Batzarre goitu orren erabakia!

Izan bedi guztia Jainkoaren gloriarik aundierako, eta Berák gorde dezala, urte askoz, Euskal-Batzarre argidortar ori.

Donostian, 1890-ko Marchoaren 30-ean.

ANTONIO ARZÁC.»

